

Balio pedagogiko handiko ikuskizuna

FRONTONA

Euskal kultura helburu, ikuslea abiapuntu

Kantxan, jokoak; kontrakantxan, jolasa

22 tanto, 22 galdera, 22 erantzun

Gorri** *ala* **Urdin

Egin apustu!

MOTZ



4

Hemen da Frontona. Heldu da euskal kulturaren pilota partida. Ezohiko ikuskizuna daramagu taula gainera; balio pedagogiko handia duen antzezlan. Ikusleak abiapuntu izanik, gure herriko kulturaren ezagutza areagotzea helburu duen obra da.

Bi hitzetan, ohiko pilota partida bat antzeztuko da, tokian tokiko pilotalekuan.

Bi neska gazte ariko dira kantxan; kontrakantxan, berriz, festarako elementu ugari elkartuko dira: artekaria, epailea, garbitzailea, esatariak... Hau izango da gune biziena eta ikusmin handia sortuko du.

Erabat interaktiboa izango da antzezlan.

Batetik, antzeztutako partida izango da kantxan, pilotariena, 22 tantotara (jokoa).

Bestetik, kontrakantxako pertsonaiak, euren ardurak izateaz gain, etengabeko hartu-emanen egongo dira publikoarekin.

Bi multzotan banatuko dituzte ikusleak:

Gorriak eta Urdinak (jolasa).

Horrela, jokatutako tanto bakoitzeko euskal kulturari buruzko galdera bat egingo zaie taldeei, eta hauek behartuta egongo dira zuzen erantzutera, 22ra iritsi ahal izateko.

